

# MALLE TAK EGTERA BEHARTUJAKI

ZERGATIK AGERTU BEHAR DU AUZOAK KUTXIKO DESJABETZE ETA KALERATZEEN AURKA?

**B**eharbada, auzoko askok ez duzue jakingo, baina –Santa Maria Katedrala Fundazioak hala eskatuta– Hirigune Historikoa Biziberritzeko Agentziak (ARICH) otsailaz geroztik berriz ere ekin dio Kutxi kaleko 99., 101. eta 103. zenbakietako eraikinen aurkako jazarpenari. Jazarpen hori, oraingoz, higiezinaren arloko *mobbing* instituzional gisa agertu da, alde batetik (aurri-egoera deklaratzeko eta desjabetzeari berrekiteko mehatxua), eta eraikina utzarazteko aginduaren jakinarazpen polizial/judizial gisa, bestetik.

Dakigunez, hainbat auzokide antolatzen hasiak dira, halako inposizioei aurre egiteko garaian tresna eraginkor bakarra, ziurrenik, auzokoen mobilizazioa izan daitekeela igarrita. Baina, ezin estimatuzko elkartasun hori alboratu gabe, bestalde kezkatzen gaitu beste auzokide batzuek beharbada auzoaren ikuspegi orokorra gal dezaten, orain kalteturiko auzokideen kasu partikularraz harago begiratu gabe. Horrela eragotziko litzateke auzokide guztiak Alde Zahar osoari eragiten dion zerbaiten aurka era kolektiboan agertzea, etorkizunean Alde Zaharrerako nahi duten ereduak baita hori, azken batean.

Areago, daitekeena da norbaitek honela pentsatzea 103. zenbakiko etxe okupatuaz: “izan ere, *besteren jabetza okupatzen ari diren gazte batzuk baino ez dira*”; edo 101. zenbakiko bizilagunez: “*oso ama eta alaba burugogorrek dira, eta eskainitako guztiari uko egiten diote*”. Horra hor iritzi publikoaren aurrean sakatu nahi izan duten irudia. Baina hura al da egia? Ala badaude jarrera horiei eusteko arrazoi justifikatu eta pisutsu batzuk, norberekoikerian oinarritzen ez direnak, gainera, baizik eta inposatu nahi diguten ereduaz bestelako auzo-eredu batean?

Baina agian horiek guztiak hobeto ulertuko dira, baldin eta –desjabetzeko mehatxua jaso duten Aiztogile kaleko 101. zenbakiko bizilagunek balkoian jarri duten pankartaren ildotik (*Nolatan bota nahi gaitu geure etxetik Santa Maria Fundazioak?*)– galdera batzuei erantzuten saiatzen bagara.

## ¿Zeinek “behar” ditu Kutziko eraikinak: katedralak ala Santa Maria Fundazioak?

Galdera hori irakurrita, zenbait zalantza sortuko zaie: hara, baina ez dira gauza bera? Izan ere, sarritan erabiltzen duten mezu manipulatueta bat da. Katedrala Alde Zaharreko eraikinetako bat da, auzokideetako batzuentzat ekipamendutzat balio duena –auzoan diren erlijioetako bat praktikatzeko dutenentzat– eta artearen aldetik interesa ere izan dezakeena. Nolanahi ere, ados gaude erakin hori zaharberitzea bat datorrela eraberritzeko plan baten helburuekin (zein lehentasuna eman beste eztabaidagai bat litzateke, baina orain ez dator harira) bai eta dagokion aurrekontua onartzea ere, muga batzuekin, betiere<sup>1</sup>.

Baina Santa Maria Katedrala Fundazioa ez da katedrala, beste gauza bat da. Aldundiak, Udalak eta Elizbarrutiak 1999. urtearen bukaeran eratu zuten erakunde pribatu bat da, eta dauzkan funtsak aurrekontu publikoetatik hartzen ditu gehienbat. Fundazio horrek, katedrala zaharberitzeko aitzakiarekin, auzoaren zati baten etorkizuna erabakitzeko besteko *ahalmenak* bereganatu ditu, katedralari berari doakzioak dezente gairatzen. *Ahalmen* horiek, hain zuzen, Katedralaren Plan Gidatzailea delakoan daude bilduta.

Hortaz, auzoaren etorkizunean hainbesteko eragina izango duen plan bat izanik, zentzuzkoa zaigu galdera hauek egitea: plan hori legez nork eta noiz onartu zuen? noiz ezarri zen alegazioak egiteko aldia, PERIrekin bezala eta halako planekin ezarri ohi den bezala? zein erakundetan egin da eztabaida publikoa eta zeinek egin dute plan horren alde?... Horren guztiaren erantzuna da Fundazioak berak onartu zuela plana; erakunde pribatua denez gero, ez duela eztabaida publikorik egin, ez eta alegazioak egiteko aldirik ezarri ere; eta, jakina, bere nahierara eta interesen arabera taxutu zuela plana, auzokideei iritzia emateko edo zuzenketa egiteko aukera bat-bera ere eman gabe.

Eta hori ez da huskeria; izan ere, Santa Maria Fundazioaren planek katedrala zaharberitze hutsak izango lukeen baino askoz eragin handiagoa dute Alde Zaharrean. Hain zuzen, Fundazioa Alde Zaharreko gune publiko gutxietako hiruz jabetu da dagoeneko auzoan: Santa Maria plazaz, Buruileria plazaz, eta Buruileria plazaren goialdeko bolatokiaz. Katedralaren Plan Gidatzaileak eskatuta egin da hori guztia, ikus dezakegunez:

*Ziurrenik, elizpea ongi erakusteko, jendearentzat etengabe irekita egon beharko du; hartara, **plazaz jabetzea lortu behar da, katedralerako “hiri-atari” gisa, burdin hesi batekin ere itxita**<sup>2</sup>. Bestalde,*

*garrantzitsua da Santa Maria kantoian zirkulazioa eragotzi edo murriztea, bolatokiarenean eraikina eraistea*<sup>3</sup>.

Halaber, horren ondorioz IV. etxadiko (Kutziko 85. zenbakitik 103. zenbakira) bizilagun asko etxer aldatzera behartu dituzte, desjabetze-espeditate batzuk ere abiarazita.

Gainera, katedralaren eraikina bera zaharberitzeko ez diren planak gero eta zati handiagoa hartzen ari dira orain arte Plan Gidatzailean inbertitu diren 40 milioitik gora euroetatik (gehienak aurrekontu publikoetatik datoz). Jokaldia sekulakoa da: izaera pribatuko fundazio batek, jendaurreko eztabaidarik gabe, auzoaren etorkizunaren alderdi garrantzitsu bat erabakitzen du, auzokideei galdetu gabe, baina gure lepotik finantzaturik.

## ¿Eta zertarako “behar” ditu Fundazioak eraikin horiek?

Horri erantzuteko, Fundazioaren aipatutako agiria, haren Plan Gidatzailea, erabiliko dugu. Hala, *Hirigintzazko diagnostikoa* (“Diagnostiko urbano”) deritzon atalean, etxadian esku hartzeko moduei ari direla, hau esaten da:

*Askotariko proposamenak jorratu ditugu, gizartean nahiz zerikusia duten erakundeetan eztabaida bati hasiera*



- 1 - Bide batez, Egin Aylluk ez du babestuko kultu-tokiak diru publikoz finantzatzea ustez akonfesionala den gizarte batean, baina, hala ere, lotsagarria da, batetik, erlijio katolikorako eraikin batean oso diru-kopuru handiak erabiltzea eta, bestetik, auzoko beste erlijio batzuetakoek (musulmanak eta ebanjelistak) egoera txarreko lonja batzuetan bildu behar izatea, halako eraikin eta praktiketarako gutxieneko baldintzak izan gabe.
- 2 - Plan Gidatzailea, *Obras de puesta en valor* (“Balioa nabarmentzeko lanak”); letra lodia geuk jarri dugu.
- 3 - Plan Gidatzailea, *Obras en el entorno y la manzana* (“Ingurune eta etxadiko lanak”) atala. Plan Gidatzaileko pasarte guztiak Fundazioaren webguneko gaztelania hutsezko testutik euskaratu ditugu.



ematearren. (...) *Bi aukera horiek konbinatuz –baterantz edo besterantz gehiago edo gutxiago hurbildurik–, konponbideen aukera osoa lortuko da, etxebizitza-egitura bere horretan gorde eta zaharberritze integrala egitetik multzoa erabat eraldatzeraino, zerbitzu-erakin berri bat eginda.*

Hau da, agirian bertan jasotzen dira bai etxebizitzak eta haien bizitegi-erabilera bere horretan uzteko aukera bai multzo osoa eraldatu eta zerbitzu-erakin berri bat egiteko aukera; hartara, ez dirudi hain ezinbestekoa denik bizilagunak beren etxeetatik botatzea. Faltan bota dugu, ordea, “gizartean eztabaida bat” hasi izana horren inguruan. Halakorik ez da izan, besterik gabe, eta gutxi batzuek –Fundazioaren barruan dauden erakundeek, hain zuzen– hartu dituzte erabakiak.

Eman dezagun beste pauso bat, baina, beste galdera bati erantzuteko. Baldin eta multzoa erabat eraldatu eta zerbitzu-erakin berri bat egitea erabakiko balitz, zer proposamen jaso da Plan Gidatzailean? Horretarako, agiriko *Jarduera proposamena*

(“Propuesta de actuación”) izenburuko atalera jo, eta honako hauek aurkitzen ditugu, besteak beste:

*Genioenez, geure esku-hartzeak filosofia horren barruan kokatzen saiatu gara, hasieratik monumentua “musealizatzeko” aukera ikusten eta ikusarazten ahalegindurik beti; hori da batzuetan “balioa nabarmentzea” esaten dioguna, hain zuzen jasotako ondarea ustiatzea –hartatik balioa ateratzea- baitakar berekin.*

(...) *Katedralaren etxadia hiriaren museo bat, elizaren eta Gasteizen arteko harremanetan oinarritutakoa, sortzeko proposamenean sartu dugu.*

Hau da, helburu da museo bat eraikitzea, *balioa nabarmentzeko,*

*balioa ustiatu eta atera ahal izateko (noski, balioa diotenean, dirua esaten ari dira)... Orain hasi gara ulertzen zergatik ez den gizarte-etzabaidarik abiarazi... batez ere auzokideekin. Demasekoa delako zeure betiko etxea utzi behar izatea beste batzuek katedralean eginiko lanen balioa (dirua) ustiatu eta atera ahal izan dezaten.*

Baina, gainera, haien ere ez dute uste ezinbestekoa denik museoa Kutxiko etxadian jartzea. Ikus dezagun zer dioten horri buruz Plan Gidatzaileko 5.6. atalera (*Balioa nabarmentzeko lanak izenburu deigarria du, hain zuzen*):

*Katedralari, haren zaharberritzeari, eta abarri buruzko erakusketa. Elizbarrutiaren eta katedralaren museoaren Aiztogile kaleko etxadian jarri ahal da (...)*

*Behin-behineko erakusketa hori behin betikoa izango da lanak bukatu, eta katedralaren museoaren sortzen denean. Etxadia erabili ahal bada, bikain; bestela, katedralarekin konformatuko gara,*

Argi dago, bada, ez dela ezinbestekoa, inondik ere ez. Hori guztia berretsi izan dute azken boladan Kutxiko etxadi horretarako erabili izan dituzten proposamenek; horien artean dago, esaterako, arkeologo ikerleentzako egoitza bat sortzea<sup>4</sup>: Bai izango litzatekeela izatekoa Kutxiko 101. eta 103. zenbakietan bizi diren pertsonak kaleratzea... Hedegile kalean egiten ari diren Zain zentroko ikerleak ostatatzeko.

## **Bat al dator Fundazioak nahi duena auzoaren interesekin?**

Galdera horri erantzuteko, errazena izango zen iragarri baino egin ez zen *gizarte-etzabaida* hartara jotzea, edo Plan Gidatzaileari aurkeztu zizkieten alegazioetara, baina ez da halakorik egin.


Hala ere, ezezko erantzuna aurrera dezakegu, PERI eta Katedralaren Plan Gidatzailea abian jarri zirenetik Alde



Zaharreen salatu izan den zerbait da eta. Komeni zaionean Udalak aitortzen duenez<sup>5</sup>, auzoko egoera sozioekonomikoa hiriko degradatuena da, alde handiz, eta onartezinak dira oinarriko zerbitzuen eta horniduren aldetik auzoak dituen gabeziak. Hartara, ikusten dugu aldi berean, biziberritzeko ustezko plan baten ildotik, egitan auzoa musealitzeko plan bat egiten ari direla neurri handi batean, museoak eta arte-arloko azpiegiturak egiteko diru-xahutze handi eta arranditsuen atzean *Erdi Aroko almendra handian* bizi diren pertsonen miseria ezkutatu nahi duena.

Esajeratzen ari garela? Hasi zaitezte kontatzen museoak eta haiek egiteko erabili den dirua: Karta museo eta Arkeologia museo berria (Bibat); Zain zentroa; Artium; Montehermoso... eta egiteko aztertzen ari direnak (Pilota museoa, Katedralaren museoa). Turismoko liburuxketan jartzeko zoragarria izango da, baina Alde Zaharreko biztanleen ikuspuntutik, aipaturiko gabeziak nozitzen dituztela eta, sekulako lotsagabekeria da.

Ildo horretan, zeharo onartezina da zerbitzu-gabezia handiak dituen auzo batean –liburutegi publikorik ere ez dagoela, eskolak jarduerak duintasunez egiteko gutxieneko lekua ez daukala, adinekoentzako eguneko zentroak “agertu” gabe jarraitzen duela...– orain, bizilagunak etxadi oso bat uztera behartu eta gero, Fundazioa eta ARICH bisitariarentzako ekipamendu berriak inposatu nahian etortzea, berriro ere hamaikagarren aldiz auzokideak musu-huts utzita, auzo-ekipamenduen aldetik dituzten beren beharrekin.



## Ez da burugogor edo aprobetxategi izatea, auzoarekiko konpromisoa baizik.

Bada, orain arte azaldutako arrazoi horiexek dira 101. zenbakiko bizilagun etxejabeen nahiz 103. zenbakia okupatzen dutenen jarreraren oinarriak. Horrexek argitzen du zergatik dauden harreman on horiek eta lankidetzak hori bi etxebizitzetako artean (teoriaz oso egoera desberdinetan daudenean), nahiz eta horrek hainbeste harritu errealitatea ezagutzen ez dutenak edo erakundeek aurrera eramaten duten kontrairudi-kanpainari (amalaba burugogorak, okupa aprobetxategiak) engainatzen utzi diotenak.

Tomasa eta Elena dira, hain zuzen, 101. zenbakiko bizilagunen izenak, eta eraikin horretan bizi izan dira haren 90 urteko bizialdiaren erdian bata

eta jaio zenetik bestea. Datu bakar hori jakinik, hain zaila al da ulertzea betiko etxean bizitzen jarraitzeko nahi tinkoa? Baina, gainera, bizilagun horiek uko egiten diote geratzeko nahiarekin salerosketatan ibiltzeari Udalak eta Fundazioak etxetik joateko egiten dizkieten eskaintza eta presioen aurrean (duela urte batzuk ere beste desjabetze-espeditante bat ireki zieten). Beti esan dute ez daudela batere laguntzeko prest auzokideen interesen aurka doazen planak aurrera eramaten, auzoaren egoera eta beharrak zein diren jakinda, eta horretarako, gainera, beren betiko etxeaz baliatzen dira. Jarrera goresgarri hori buruhauste asko sortzen ari zaizkie, eta auzokideen txaloea ez ezik, babesa eta elkartasuna ere merezi ditu, jakina.

Azalez, bestelakoa da 103. zenbakiko etxebizitza okupatzen duten pertsonen kasua, baina ez mamiz. Benetan sinesten al du inork, baldin eta pertsona horiek,

5 - Ikus Urban programan hautagaitza aurkezteko Udalak egin zuen agirian (jendeak *Irla Beltza* deitutakoa) auzoaren gizarte- eta ekonomia-egoeraz azaltzen diren datuak: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http://contenidosEstaticos/adjuntos/8571.pdf>



inoren jabetzak okupatuta, besteren kontura eta hutsaren truke bizi nahiko balute, auzoko (eta hiriko) etxebizitza huts guztien artean *urakanaren begian* hainbat urte daramatzen bat aukeratuko zuketela, zein eta ARICH eta Santa Maria Fundazioa moko moko edukitzeko? Bistan da ezetz.

Aitzitik, *aprobetxategi* gisa aurkezten dituzten pertsona horiek 2006. urtean erakundeek ordurako bost urtez bertan behera utzita zuten etxe hura, hain zuzen (lehengo bizilagunak joatera premiatu zituzten, eta ordudanik ez ziren arduratu), okupatzea

erabaki zuten, beren okupazioaren zuzeneko lekukotasunarekin (ez dute inoiz okupazioa ezkutatu, eta beti aldarrikatu egin dute) ARICHek eta Fundazioak auzoan aurrera eramaten ari diren politika ozen eta argi salatzen. Politika hori, gainera, etxebizitzaren arloan hauxe da, Fundazioko gerentearen beraren hitzetan: «*alde zaharra duintzea, alde batetik, kalitateko etxebizitzetarako politikak eginez, jende integratua hara eramateko moduan, eta, bestetik, bizigarritasun-dentsitatea jaiste*»; baina hain politikak ez diren hitzetan, hauxe da: jende

diruduna sartu eta sosik gabeko jendea bota. Hori hain da ezaguna alde zaharrak eraberritzeko hainbat planetan, non termino bat ere asmatu duten hura adierazteko: *gentrifikazioa*. Leku askotan aplikatzen saiatu dira edo saiatzen ari dira, hala nola Raval (Bartzelona), Alameda (Sevilla), San Frantzisko/Bilbo Zaharra (Bilbo) edo Lavapiés (Madril) auzoetan, besteak beste. Auzo batekin egin nahi den espekulazio hori da Kutxiko 103.eko okupazioaren funtsezko salaketa eta arrazoietakoa bat.

Horregatik, 103. zenbakiko etxebizitza okupatzea auzoarekin konprometitzeko duten modua da, halako planei aurre egiteko auzokideak egiten ari diren borrokarekin bat. Hain zuzen ere, plan horien xedea da auzoa museo itxurako erakusleiko handi bizigabe bihurtzea, eta horretarako egungo auzokideok soberan gaude neurri handi batean, argazki eta postaletan hain txarto ematen duten gizartegabeziak islatzen ditugulako... hain axola gutxiko kontua haientzat.

## Kutxitril eta Egin Ayllu

Idazki hau irakurri ahala ohartuko zinetenez, Egin Ayllu protagonista gisa ez jartzen eta pluraleko lehen pertsona ez erabiltzen saiatu gara, nahiz eta Santa Maria Katedrala Fundazioak utzarazi nahi dituen leku okupatuetako bat biltokizat dugun lokala izan, Kutxitril Ateneoa (Kutxi, 99). Badaude arrazoi batzuk horretarako.

Lehenik, ez dugu geure egin lokal horren okupazioaren meritua. Lokala okupatu zenean, Egin Ayllu ez zen existitzen, baina sortzean, biltzeko lokalizat erabiltzea erabaki genuen, okupatu zuten pertsonak okupatzeko zituzten argudio zein helburu berberak genituelako guk: funtsean, gune hori 5 urtez baino gehiagoz itxita eduki zuen eraberritze-eredua salatzea eta auzoarentzat toki bat berreskuratzea, erabilera soziala emate aldera. Horren emaitza izan da Kutxitril Ateneoa okupatu zenetik auzoan gune askatuen aldetik dagoen gabeziari aurre



egin dion tokizat erabili dela. Erabili dutenen artean daude, besteak beste, globalizazioaren eta desarrollismoaren aurkako taldeak, Palestinaren adiskideak, etorkinak, txosnetako jendea, 18/98 azuzian prozesatutako adiskideak, auzoko jendea... Kultura-jarduerak antolatzeke ere erabili da. Han erruz antolatu izan dira hitzaldiak, jardunaldiak, proiektzioak, antzezpenak, kontzertuak, eta abar, beste inon sartzeko modukoak ez zirenak (harresien aurkako jardunaldiak, MSTko Brasilgo jendea, Palestinaren alde, hil amaierako merkatuak...). Areago, bolada batean Gasteizko Apostasia Bulegoa izan zen. Hala, bada, Kutxitrilen historiaren meritua (halaxe da gure ustez) ez dagokio Egin Ayllukooi nagusiki.

Bigarrenik, azaldu dugunez, itxuraz gune batzuen eta besteen egoerak eta jasotzen dituzten mehatxuak berdinak ez diren arren, haien guztien jatorria berbera dela pentsatzen dugulako. Horregatik, hiru guneen nahiz auzokideen erantzun bateratua eman behar dela uste dugu, zeinek bere egoera berezian arreta guztia jarri gabe.

## Ondorioak:

### **Kutxiko desjabetze eta kaleratzeei aurka egitea Alde Zaharrean auzokideak duintasunez bizitzearren eta harro egoteko moduko auzo bati eustearren borrokatzea da.**

Gure ustez, idazki honetan azaldu diren galderei eman dizkiegun erantzunekin edonork aurki diezaioke erantzuna hasiera-hasieran jarri dugun galderari: *zergatik agertu behar du auzoak Kutxiko desjabetze eta kaleratzeen aurka?*

Baina ikusitako guztiari garrantzizko beste zerbait gehitu behar zaio. Fundazioaren eta ARICHen planak ez dira Kutxiko etxadira mugatzen. Fundazioa aspalditik ari da nabarmentzen katedralaren inguruko zenbait eraikinekiko interesa (Fraie Zacarias kalean, Txikitan edo Korren, adibidez), eta Udalak dagoeneko iragarri du<sup>7</sup> aurki 50 etxebizitza eraisteari ekingo diola (Barnekale Berrian eta Hedegile eta Zapatari kaleetan, esaterako); 700 etxebizitza ere jasotzen dituen zerrenda baten zati dira (horietako

gehienetan gaur egun bizi diren bizilagunak etxerik gabe geratu dira egun batetik bestera); PERIn bere garaian Exekuzio Unitate Publikotzat (EUP) izendatu zituzten etxebizitzak dira.

Hain zuzen ere, PERiko planak, Katedralaren Plan Gidatzailearen eta Hego Landatxoko Planaren (hori ere egiten ari dira) laguntzarekin, pixkanaka aurrera egiten ari dira. Ez da unea bakoitza bere interesei begira geratzeko. Banaka aurka egiten ibiltzeak, orain arte frogatu izan denez, ez du atarramentu onik. Ahaleginak batzeko garaia da, indarrak elkartu, elkartasuna sendotu eta Alde Zaharra hagitz bizirik dagoen auzo bat dela berriro ere erakusteko garaia, guri auzoaren etorkizuna inork inposatzea –nahi dugun etorkizunaren antzik ere ez duenean– eta gure ordeztuak gu non bizi erabakitzea onartzeko prest ez gaudela erakusteko.

Horregatik guztiagatik, uste dugu erronka nagusia dela era aktiboan parte hartzea gune horiek babeste aldera auzokook, elkartasunak bultzaturik, abian jartzea erabakitzen ditugun ekimen eta kanpainetan. Elkar gaitetzen jarduera horietan, auzogintzan.

7 - El Correo eta Diario de Noticias, 2010-02-25



## **Egin Aylluren fanzinearen hurrengo aleak non aurkitu**

Gure fanzinearen lehenengo bi aleak, Alde Zaharreko postontzi guztietan zabaldu ditugu. Ale bakoitzarekin izandako gastua (800 euro, 5000 ale) gure ekonomia estuarentzat, gure poltsikoetatik eta zuen ekarpenetatik biltzen dugunarentzat, gastu handia izan da eta ezin dugu bide honetatik jarraitu. Horregatik, eta aldizkaria dohainik izaten jarraitzeko, zenbaki honetatik aurrera ale gutxiago inprimatuko ditugu eta postontzietan utzi beharrean auzoko hainbat denda eta tabernetan utziko dugu. Zabalpenean laguntzen gaituzte guneak:

<b>Kutxi</b> Okindegia (67) Martin's Bodega E. Legarda Harategia Hala Bedi taberna	<b>Pinto</b> Hikaateneo	<b>Andre Mari Zuria</b> Dublin	<b>Barrenkale</b> Horno de Pan (20-22)	<b>Bueno Monreal</b> Hala Bedi Irratia	<b>Herre</b> Bodegon
<b>Sto. Domingo</b> Zapatería Dono	<b>Korre</b> Zuloa Irudia Iguana taberna	<b>Sta. María k.</b> Alimentación Juan	<b>San Francisco</b> Puente Farmazia	<b>Zapa</b> Zapateneo Abuelo taberna	

Bestalde, eta sarritan gure ekimenekin ekonomikoki nola lagundu dezakezen galdetu duzue, hona hemen gure kontu korrantea, non zuen laguntza ongi etorria izango den. Eta eskertua.

Kontu korrante zenbakia: 3035 0012 74 0121015813